



ESPERIMENTUA: ZEIN XABOIK EGINGO DU BURBUILA-TONTOR HANDIENA?

Bikarbonatoari eta ozpinari xaboi gehituz gero, burbuilak sortzen dira, xaboiak burbuilen barruan harrapatzen baitu sortutako gasa. Baina xaboi guztiek egiten ote dute burbuila-kantitate bera, edo ba ote dago burbuila gehiago egiten duen xaboiaren bat?

SAIATU ASMATZEN: Zer xaboi-motak egingo du, zure ustez, burbuila-tontor handiena bikarbonatoari eta ozpinari gehitutakoan? Adibidez, xanpuak, bainu apartsurako xaboiak, gorputzeko xaboiak, eskuetarako xaboiak, ontziak garbitzeko xaboiak edo arropa garbitzeko xaboiak?

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra gehitzen duzun xaboi-mota dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Zer bikarbonato-kantitate erabiliko duzu aldi bakoitzean?
- Zer ozpin-kantitate?
- Zer xaboi-kantitate?
- Bikarbonatoari edo ozpinari botako diozu xaboiak?

DATUAK

- Nola neurtuko duzu erreakzioaren tamaina?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

JONEK (5 URTE) 2 KOILARATXOKADA BIKARBONATO BOTA ZITUEN EDALONTZI BAKOITZEAN. EDALONTZI BATEAN, APARBAINURAKO XABOIAREN KOILARAKADA BAT JARRI ZUEN; BESTE BATEAN, ESKUETARAKO XABOIAREN KOILARAKADA BAT; ETA, AZKEN EDALONTZIAN, ESKUETARAKO APARXABOIAREN KOILARAKADA BAT. EDALONTZI-LAUDEN OZPIN GEHITU ONDOREN, BURBUILAK ERRETILUAN NORAINO JOAN ZIREN AZTERTU ZUEN, ERABAKITZEKO ZEIN XABOIK EGIN ZUEN BURBUILA-TONTOR HANDIENA. IKUSI ZUEN ESKUETARAKO XABOIAK EGIN ZUELA BURBUILA GEHIEN!



MAILA AURRERATUA: Zer beste galdera dituzu bikarbonatoaren eta ozpinaren arteko erreakzioari gauzak gehitzeari buruz? Diseinatu esperimentu bat galdera horri erantzuteko.